


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 269. alea - 2022ko urtarrila



MIRIAN ARRIZABALAGA:
"Kezka sortzen dit
ekoizleen zaurgarritasunak"




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

KALITATERO
EUSKAL
OKELA

CARNE DE BUCALDO
DE CALIDAD
DEL PAIS VALCO
BURKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 UTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

DEBA HORTZ KLINIKA



Hondartza kalea, 20 behea - 20820 - Deba
Tel. 943 19 28 19 | info@debaklinika.com


Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (ikusezina)
Haurren odontologia

*Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



janire & maĩtane
ilepaina degia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZE HAR




AURKIBIDEA

6

ELKARRIZKETA

Jon Lafuente elkarrizketatu dugu *Debarrak Munduan* atalean



9

ALBISTEA

Jon Artano kazetari zestoarrak irabazi du 2022ko Tene Mujika beka



10

ELKARRIZKETA

Mirian Arrizabalaga: "Biolur ezagutarazi nahi dugu; babesa lortu eta elkarlanak abiatu"



12

KIROLAK

Guztira 21 bikote lehiatu dira IX. Nesken Binakako Pala Txapelketan



16

ERREPORTAJEA

Eskualdeko etxegabeentzako neguko aterpea (DKTren erreportajea)



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



DEBARKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazita-koen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus

ieraenea
skolendia

"maile ditut nire/guro bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

ME ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Odola behar denean, beti hor egon dadin

Odol Emaileen Elkartearen helburua odol-emate altruista eta borondatezkoa sustatzea da. Gipuzkoan, 76 ordezkari ditugu eta, batez beste, urtean 32.000 odol-emate izaten dira. Eta Debako ordezkari borondatez gabiltzanok, besteek bezala, ahalegina egiten dugu urteko lau odol-ateraldiak ahalik eta ondoen antolatzen.

Debako biztanleak kontuan izanik, herri modura, gutxienez 165 odol-emaile behar ditugu. Eta oso harro gaude herritarrok beti erakusten duzuen eskuzabalatasunarekin, izan ere, iaz 266 odol-emate izan ditugu (120 emakume eta 146 gizon). Horietatik 19 berriak izan dira gainera!

Hala ere, gure azken urteko esperientzia gazi-goza izan da. Izan ere, beharra duenarentzat odola beti eskura egotea da helburua, eta azkenaldian ezagutu ditugu hori gertatu ez den kasuak, eta horrek asko goibeltzen gaitu. Irudipena daukat "odola

beti hor dago eta, beraz, hor egongo da niretzat behar dudanean" pentsatzen dugula, baina ez da beti horrela izaten.

Orain dela hiru urte elkarteak abiatutako kanpainak zioen moduan, "odola jasotzeko eskubidea badugu, emateko erantzukizun partekatua izan beharko dugu". Bestela, nola ziurtatu eskubide hori beteko dela?

Debako zenbait odol-emaile handi, gazte etorri zaizkit aurtun beren pena eta frustrazioa adieraziz zenbait arrazoiengatik ezingo dutelako aurrerantzean odolirik eman. Eta nik zera esaten diet beti: "Izugarria da egin duzuna, kontua ez da gutxi batzuek dena ematea, askok gutxitan eman behar izatea baizik".

Eta, esandako moduan, oso gustura gaude herritarren erantzunarekin, baina egia da, aldi berean, kezkatuta ere bagaudela. Izan ere, 38 eta 65 urte artekoak dira emailerik gehienak, baina 38tik behera

asko jaisten da emaien kopurua; horregatik, belaunaldien arteko erreleboa ez dago ziurtatuta. Hala ere, aurtun 200 odol-emaile izatera iristea espero dugu!

Gu, gure aldetik, saiatzen gara informazioa zabaltzen. Adibidez, badira urteak umeen interesa eta jakin-mina sustatzen duten jardunaldiak egiten direla eskolan.

COVID-19ak ere zalantzak sortu ditu eta azalpenak ematen saiatu gara beti. Egungo egoeran, adibidez, positibo izan denak 38^oko sukarra izan badu 14 egun itxaron beharko ditu odola eman arte, pneumonia izan badu 28 egun, eta asintomatikoa izan bada zazpi.

Hortaz, lerro hauetatik, odola emateko, bizia emateko deia egin nahi dugu. Edonork, baita zuek eta zure etxekoek ere, behar duzuen arazorik gabe jaso dezazuen.

Arantza Iriondo (Debako Odol Emaileen Elkarteko arduraduna)

Eskerrik asko eta datorrena are ederragoa izan dadila!

Eskerrak ematera gatzokizue, abenduaren 24ko Olentzero eta Mari Domingiren ohiko bisita dela eta. Hitzorduak prestaketa lan ugari eskatzen ditu aurrez, eta ezin izango litzateke aurrera eraman herriko hainbat norbanako eta elkarren parte-hartzerik gabe.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu ondorengo hauei guztiei: kaleak eta Aldats pilotalekua musikaz jantzi

zizutzen txistulari eta trikitilari taldeei, Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaile lanetan aritu ziren Goaz antzerki taldeko eta Kolore Anitzeko kideei, baita antolakuntzan aritu ziren Zubi guraso elkartekoei ere. Ahaztu gabe, jakina, albon izan ditugun beste norbanako guztiak. Mila esker eta datorren urtera arte!

Zuhatza Elkarte, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte guztiaren zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Txertoaren ondorioz kaltetua

Hau ere gertatu da. Hau ere, hemen eta orain, niri ari zait gertatzen. Horregatik, hau ere irakurtzeko aukera izan dezazun nahi nuke.

Eneritz Zubiaurre Ituarte naiz. 41 urte ditut. Emakumea naiz.

2021eko martxoaren 14an, COVID-19aren aurkako txertoa hartu nuen eguerdiko ordu batean.

Hurrengo egunean ezin nintzen mugitu, ohean itsatsita gelditu nintzen. Poliki-poliki, orduak eta egunak aurrera zihozten heinean, hitz egin ezin nuela, begiak ireki ezin nituela nengoen.

Laugarren egunean, egun osoa lo pasa ostean, ni larrialdietara eramatea erabaki zuten etxekoek; ez nuen indarrrik ezertarako, gorputza mugitu ezinik nengoen, mugitzeko esaten nion baina ez zidan kasurik egiten. Larrialdietan hainbat proba egin zidaten: analitikak, oxigenoaren saturazioa... Dena ondo zegoen. Etxera. Tratamendurik gabe. Jarraipenik gabe.

Hurrengo egunean okerrago nengoenez, berriro ere larrialdietara eramantzen ninduten; kortikoidea zainetatik sartu eta kortikoide tratamenduarekin etxera bidali ninduten.

Ohean pasa nituen 10 egun. Hilabete etxetik atera gabe. Hurrengo bost hilabeteak medikuen erantzunik gabe.

Bajan nago geroztik. Nire baja-paperean *post-vacunal* (RAM) jartzen du.

Lehen irteerak egiten hasterako maiatza zen. Etxetik 300 metrora mugitzeko gai nintzen, hasieran. Itsasoa ikustera kotxez eramaten ninduten, eta lortu dut oinez bertara iristea.

Amak gure etxean ezaguna den osasun-etxe batera joatera animatu ninduen. Txanda hartu eta uztailean izan nuen lehen hitzordua. Bertan, galdera sorta bati erantzun, zer sentitu dudana esan-entzun, ordura arteko ibilbidean egondako medikuen txostenak irakurri eta berehala polineuropatia edota nerbio-sistema periferikoan "desajuste" bat egon dela esan zidaten. Uztailetik hona beraiekin nabil: akupunturare-

kin, nutrizionistak jarritako dietarekin eta homeopatiarekin. Beraien laguntzarekin aurrera noa.

Beraiek esandakoarekin nire medikuarengana jo nuen berriro abuztuan. Neurologoarenerako hitzordua eman zidan, eta korrika erresonantzia magnetikoa, elektromiograma eta analisi espezifikoa. Aurrez patologiaren bat ote nuen aztertu nahi zuten.

Ez zen ezer halakorik agertzen. Egin zizkidaten azterketek polineuropatia bat gertatu dela diote, eta txertoaren ondorio izan dela.

Azaroan errehabilitazioko medikuak ikusi ninduen eta orain errehabilitazioan nabil.

Hau da niri gertatzen ari zaidana, hemen eta orain.

Txertatzea erabaki nuen. Nire osasuna kaltetu da. Ez dut

COVID ziurtagiria lortzeko eskubiderik. Nire kasua ez da jasotzen txertoaren albo-ondorioen kasuen artean. Nire alabekin, familiarekin funtzionatzeko, egunerokorako behar besteko indarrrik ez daukat. Idazteko edota hitz egiteko "hiztegia" galdu dut,...

Pandemiak oso egoera gogorak ekarri ditu jende askorentzat, denentzat. Egoera gatazkatsuak sortu dira gure artean, kalean, besteak haien ekintza eta erabakiengatik epaitze-

raino, gure artean haserretzeraino. Ezagutu ditugu kasu positiboak, COVID-19ak eragindako ospitaleratzeak eta heriotzak. Gogorra ari da izaten, eta hori guztia bizi izan dugunoi/dutenei begirunea eskaini nahi izaten diegu.

Iritziak iritzi, begirunea nahi dugu guk ere. Izan ere, hau ere gertatu da. Hau ere, hemen eta orain, niri ari zait gertatzen (eta beste batzuei ere bai). Horregatik, hau ere irakurtzeko aukera izan dezazun nahi nuke.

2021eko martxoaren 14an, COVID-19aren aurkako txertoa hartu nuen eguerdiko ordu batean.

Hurrengo egunean ezin nintzen mugitu.

**"Iritziak iritzi,
begirunea nahi dugu guk ere.
Izan ere, hau ere gertatu da.
Hau ere, hemen eta orain,
niri ari zait gertatzen
(eta beste batzuei ere bai)"**

Eneritz Zubiaurre



Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



SGO

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgobogados.eus



Debarrak munduan

JON LAFUENTE

Jon Lafuente Bartolome 29 urteko gazte zientzialaria da. Leioako fakultatean Fisikako gradua, eta Donostiako CFMn (Materialen Fisikaren Zentroa) Nanozientzien masterra burutu zituen. Berehala, beka bati esker ikerkuntza-lanetan jardun ondoren, 2020ko azaroan doktore-tesia defendatu zuen Leioan. 2021 hasieran AEBetara joan zen debarra ikerlari moduan lan egitera eta han dabil ordutik.

Non zaude gaur egun? Nolatan?

Austinen, Texaseko hiriburuan. Ikerkuntzan puntakoa den The University of Texas at Austin (UT Austin) unibertsitatean lan egiteko eskaintza egin zidaten, eta erronka onartu nuen.

Zerk eraman zintuen horra?

Nire ikerkuntza eremuko ikerlari ospetsuenetako batekin lan egiteko aukerak. Zientzian, beste hainbat eremutan bezala, oso aberasgarria da era desberdinetan lan egiten duten taldeak ezagutzea. Zientzialari bakoitzak ikuspuntu berezia dauka kontzeptu orokorrak azaltzerakoan, ikerkuntza taldea zuzentzerakoan, eta, batez ere, problema berriei aurre egiterakoan. Ikasteko modurik onena zientzia hoberen egiten dutenekin egitea da eta, alde horretatik, toki paregabea da Austin.

Zertan zabilta orain?

Nire ikerkuntza eremua materialen fisika konputazionala da. Egitura atomikotik abiatuz, materialen propietateak (eroankortasun elektrikoa, argi absorzioa...) aurreratu da gure helburua. Propietate konplexuak ulertzeko teoriak garatzen ditugu, eta materialen simulazioak egiteko programa informatikoak inplementatu. Kalkuluak egiteko milaka prozesadore dituzten superordenagailuez baliatzen gara, eta Austineko unibertsitatean erabiltzen duguna bosgarren indartsuena da mundu mailan.

Espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Zentzu batean bai. Filmetan ikusten ditugun gauza asko benetakoak dira. Kotxe handiak, cowboy txapelak eta country musika, adibidez. Baina, bestalde, azken urteotan Google, Apple edo Tesla bezalako enpresa teknologiko asko San Frantziskotik Austinera mugitzen ari dira, eta horregatik jende gazte ugari ari da etortzen bertara bizitzera. Horrek tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen giro berezia sortzen du hirian. Dударik gabe gehien harritu ninduen paisaia da. Uste nuen Texas osoa basamortua izango zela, baina estatuko zati handi batean, eta bereziki Austinen, euri dezente egiten du udaberrian, eta oso berdea da.

Laburrean

Paisaia bat: euskal kostaldea

Usain bat: kafearena

Zapore edo jaki bat: amaren haragi-bolak

Gustuko dut... naturaltasuna

Ez dut gustuko... berekoikeria

Amets bat: Nobel saridun euskaldun bat izan dadila



Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ia batere ez; Euskal Herriko lagunei deitzean bakarrik egiten dut euskaraz. Oraindik ez dut euskaldunik topatu Austinen, baina bila jarraituko dut!

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Bertako tribuen hizkuntza batzuk mantentzen dira, adibidez komantxera edo caddoar hizkuntzak, baina tamalez galbidean daude.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Jendearen gertutasuna ekarriko nuke. Orokorrean hemengo bizimodua bakartiagoa da, eta oso jende interesgarria ezagutzen ari naizen arren, hemen adiskidetasun-idea desberdina dela iruditzen zait, azalekoagoa.

Euskal Herrira onenak izateko anbizioa eramango nuke; batez ere zientzia eta teknologian.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Debara ez dakit, baina Euskal Herrira ziur. Esperientzia oso aberasgarria izaten ari da, baina etxean bezala inon ez!



Borrokan segitzeko prest, pentsioak aurrekontu orokorretan legez blindatu arte

Joan den urtarrilaren 15ean, larunbata, lau urte bete ziren pentsio publiko duinen aldeko mugimendua piztu eta kalean protestak egiten hasi zirenetik eta, urtemuga baliatuz, manifestazio jendetsuak egin ziren Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta beste hainbat hiritan, tartean Eibarren. Bertan, 800 bat lagun elkartu ziren mobilizazioan, baita debarrek ere.

Manifestazioaren amaieran, gogora ekarri zuten lau urte daramatzatela pentsioen sistema publikoa defendatzen eta ohartarazi dute “behartuta daudela”

borrokan “tinko” jarraitzera harik eta pentsioak aurrekontu orokorrean “legez blindatzea” lortu arte, ikusita “governu honen zati handi batek erreberentzia” egiten diela “botere ekonomikoei eta finantzarioei”.

Bestetik, hilaren 20an hitzaldia eskaini zuen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kide Jon Fanok Debako Kultur Elkartearen. Pentsioen egoeraz, osasungintzaz, lan erreformaz eta pentsiodunen mugimenduaren nondik norakoez aritu zen gonbidatua. Deba-Itziarko pentsiodunek antolatutako zuten solasaldia.



Arg.: Silbia Hernandez

Ia 15.000.000 euroko aurrekontua izango du Mankomunitateak

Urtarrilaren 20an hasi berri den 2022rako aurrekontua aurkeztu zuen Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak. 14.890.565,16 euro izango ditu aurtengo jardunerako, iaz baino % 2,66 gehiago. Aurrekontuko kopururik handiena hiri-hondakinak gaika biltzeko zerbitzura bideratuko da, 9 milioi euro pasa. Gainerako 4 milioi euro pasak kale-garbitzarako izango dira. Erakundeko presidente Iosu Arraizek prentsaurrekoan azaldu zuenez, helburua da Mankomunitatearen “zerbitzuen kalitateari eustea”.

Bestalde, Arraizek azpimarratu zuen Mankomunitateak 26.000 euroko bi partida berri txertatu dituela 2022ko aurrekontuan. Kasu horretan, partide-

tako bat da legeak eskatzen duen Jasangarritasun Energetikoaren Plana gauzatzeko (erakundearen eraginkortasun energetikoa bultzatzeko). Bestea, berriz, Mankomunitatearen ibilgailu flota energetikoki eraginkorrakoak diren ibilgailuengatik aldatzeko dauden aukerak aztertzeko izango da.



IGOR LARRAÑAGA

Ur txikitan

Urtarrilaren 1a den honetan burutik ezin kenduta nabil atzo gauean telebistan ikusitakoa. Etxeko alaben proposamenez ETB1en ikusi genituen kanpaiak eta ondorengo musika-saioaren hasiera.

Aurreneko taldeak Gozategi eta Drindots izan ziren, eta musikari talde bera partekatu zuten oholtzan. Niri musikari berberak erabiltzea zilegi iruditu zitzaidan aurrekontu murrizta medio. Laugarren abestian, ordea, Iñaki Ortiz de Villalba taularatu zuen Betagarriren kantu bat abestera, Gozategirekin eta Drindotsekin igo ziren musikari berberekin. Musikariek bateria, organoa, gitarra eta baxua jotzen zuten, eta bai ondo jo ere Betagarriren kantuaren tronboi eta tronpeta soinuak ateratzeraino, ohol-tza gainean haize instrumenturik ez zenean. Telebista momentuan itzali eta ohera joan ginen, saioa tamalgarria zela epaituta.

Bart gaueko programa, gure txikitasunak konplexuren bat sortuko baliagu bezala, handiagok egiten duten hori kopiatzearen adibide garbitzat ikusten dut. Batez ere handiaren baliabiderik ez dugunean, iritsi nahi baina iristetik urrun gelditzen zarenean bezala.

Tamalez gizarte mailan ere sarri sumatzen ditut antzeko tendentziak, txikiak diren erakunde batzuk handitu edota hedatzeko hartzen dituzten erabakietan. Ur txikitik ur handiagotara salto egiten dute eta ur horietan nabigatzeak dakartzan lanak aurrera eramateko zailtasun eta baliabide urriak agerian geratzen dira.

Nik ur txikitan segi nahi izatea zilegi dela aldarrikatu nahi dut, ur txikitik txikira saltoz.

Urte osoko programazioa osatu nahian, herritarren inplikazioa eskatu du Kultur Elkarteak

“Osasun-krisiak gogor kolpatu du kultura, baina geldialdi horri buelta emateko lanean hasiak gara eta abiatu berri den urte honetarako kultur programazioa aberatsa prestatu nahian gabiltza, *KulturEkin* egitasmoaren baitan hilabetero ekimen bat antolatuz”. Hitz horiekin laburbildu dute Kultur Elkarteko kideek 2022ra begira ezarritako erronka nagusia.

Kultur eskaintza aberastea da helburu nagusia, baina ez bakarria. “Eragile eta herritarren inplikazioa sustatzea, Kultur Elkartea indartzea eta, bide batez, eraikinaren egoerari irtenbide bat emateko bidean pausoak ematen hastea ere bilatzen dugu”, gaineratu du zuzendaritzako kide Alex Turrillasek.

Oraindik ere ez dago itxita urte osoko programazioa, baina hilabete bakoitzean ekitaldi bat egitea da asmoa eta udaberrira arteko egitarauaren berri eman dute dagoeneko. Olatz Salvador (Donostia, 1990) musikaria izango da protagonista otsailan; hilaren 25ean eskainiko du kontzertua. Esti eta Mikel Markez izango dira martxo-ko gonbidatuak eta, apirilean, berriz, Liburuaren Eguna ospatzeko ekimenek beteko dute programazioa (liburu eta eragileen azoka, irakurraldiak...). Datak hurbildu ahala zehaztu eta jakinaraziko dituzte emanaldien inguruko xehetasunak.



Arg.: Martin Lores

“Osasun-egoerak eta haren bueltan ezarritako neurriek ahalbidetzen duten heinean behintzat, dinamika berri honi helduko diogu. Neguan, adibidez, formatu txikiaren aldeko apustua egingo da, Kultur Elkarteko aretoa baliatuta; eta udan formatu handiagoei eman nahi zaie kabida, eraikinaren kanpoko plaza aprobetxatuz”. Formatu eta diziplina ezberdineko ekintzak izango dira, hortaz, programazio nagusiaren ardatzak.

Bide batez, iaz martxan jarritako Gure Giro programa ere berreskuratu nahi du Kultur Elkarteak, herriko eragile eta kul-

tur sortzaileei ekimenak antolatzeko erraztasunak eman eta bertako kultur eszena indartzea helburu.

Urte berrirako erronka argi badute ere, egitaraua ez dago guztiz zehaztu eta biribilduta, eta antolatzaileek instituzioen, eragileen eta herritarren parte-hartzeak duen garrantzia nabarmendu dute berriz ere. “Guztiei egin nahi diegu proiektuaren parte izateko deia eta gonbitea: ekimenak proposatuz, ekarpenak eginez, antolakuntzan lagunduz... Guztion inplikazioa izango da aurrera bidean pausoak emateko bitartekorik nagusi eta eraginkorrena”.

“Eta hik zer?” antzerkiforuma antolatu du Bizikidetzeta Batzordeak

Otsailaren 3an (osteguna) Baketik Fundazioaren “Eta hik zer?” antzerkiforuma izango da Agirre jauregian, Bizikidetzeta Batzordearen ekimenez. Indarkeriak gure egunerokotasunean zenbaterainoko eragina izan duen agerian uzten duen obra da eta gure bizikidetzaren inguruko hausnarketa egitea bilatzen du; horretarako, hiru galdera hauei buruzko ideiak partekatzea proposatzen du: zer gertatu zen eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Eta, zer egin dezakegu etorkizunean berriz gerta ez dadin?

Batzordearen ustez, “aukera polita da iragana gogoratzeko, bizi izandako egunerokotasuneko gertaera batzuk aztertzeke eta, aurrera begira, etorkizun partekatua bestelako ikuspegi batetik sortzeko”.

Debako Bizikidetzeta Batzordea 2019an aurkeztu zen eta,

Udalak gogorarazi bezala, “Udaleko alderdi politiko guztien adostasunarekin, gure gertuko historian izandako giza eskubideen urraketa eta sufrimenduaren inguruan lanketa egiten ari da”. Batzordeak agerian jarri nahi du gertuko iraganean bizi, sentitu eta pairatutako sufrimenduak “ukaezinak” direla; “hortaz, hauek ezagutu, errespetatu eta aitortzea ezinbestekoa da. Herritar ezberdinek bizi izandako giza eskubideen urraketak ezagutu nahi ditugu, elkarri entzun eta elkarri aitortu”.

Antzerkiforuma otsailaren 3an izango da, 19:00etatik 21:00etara, Agirre jauregiko Ispiluen gelan (antzerkia euskaraz egingo da, eta foruma elebitan). Aurrez eman behar da izena, 685 72 00 32 telefono zenbakira deituta (izen-ematea lekua bete arte egongo da zabalik, edo otsailaren 2ra arte gehienez ere).



Jon Artanok irabazi du Tene Mujika beka, "Anderik Ande" izeneko proiektuarekin

Jon Artano kazetari zestoarrak irabazi du 2022ko Tene Mujika beka, Ameriketako ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta gure artean dabilzan hainbat amerikarren kontatu nahi dituen proiektu batekin.

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako beka honek. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Artanoren eman du irabazletzat Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea izango du kazetariak lana burutzeko, gero liburu gisa argitaratu dadin.

Bi parte izango ditu *Anderik Ande* izenburuko lanak: lehena, *Joandakoez*, Hego Amerikan gertatzen da, eta hara joandako hainbat euskal herritarren istorioak aletuko dizkigu: Argentina, Txile, Bolivia, Peru, Ekuador, Kolonbia eta Venezuelan kokatuak, besteak beste. Bigarren parte, *Etorritakoez*, gaur egun Latinoameriketatik gurera migratu eta garbiketa eta zaintza lanetan aritzen diren emakume gazteez arituko da. Elkarrizketa, kronika eta bidaia-liburuen osagaiak izango ditu kontakizunak.

Artano Kazetaritzan lizentziatua da, eta hogeituroko ibilbidea egin du hainbat komunikabidetan: irrati, telebista eta idatzizkoetan. 2016tik 2019ra bitartean Latinoamerikako berriemaile berezia izan zen EITBrentzat, eta hango esperimentzia baliatuko du, besteak beste, liburu idazteko.

Iaz bi beka banatu zituzten Debako Udalak eta Elkarrek: Erika Lagoma eta Estitxu Fernandezek amatasunari eta feminismoari buruzko elkarrizketa sorta bat landu dute, eta Jon Abrilek emakumeen lanbideei buruzko ikerketa bat egin du. Biak ala biak argitaratu gabe daude oraindik.



Arg.: Paula Blanco Vázquez

Apirilaren 7tik 8ra, gauerdian, pasako da 22. Korrika Deba eta Itziartik

Amurriotik abiatuko da 22. Korrika martxoaren 31n, eta apirilaren 7an (gauerdian) iritsiko da gurera. Lekukoak 23:35ean hartuko du Mutrikutik Debarako bidea; Debako kaleak zeharkatuko ditu (00:01ean) eta Itziarrerako bidea hartuko du gero (00:40), handik Zestoarantz abiatzeko.

AEK-k urtarilaren 19an ezagutarazi zuen 22. Korrikaren ibilbidea. Amurrio izan da martxoaren 31n lekukoari irteera emateko aukeraturako herria eta, hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ostean, Donostian amaituko

da euskararen aldeko lasterketa herrikoa, apirilaren 10ean.

"Hitzekin" izango da Korrikak edizio honetan erabiliko duen goiburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei egingo zaie aitortza, euskararen sustapenean eragile aktibo izateagatik.

Edizio honetako abestiaren letra Sustrai Colina bertsolariak egin du; Ane Garciak, Anarik eta Nerea Urbizuk abestu dute; eta Ander Zulaika, Itsaso Etxebeste, Eñaut Gaztañaga eta Nerea Urbizu bera izan dira musikariak.



GOIZANE AIZPURUA

Zumiriki

Tarteka soilik ohartzen gara etengabe eraldatzen doan inguru batean bizi garela. Olatuak eta ibaiak bereziki hazten direnean, adibidez. Etengabeko inguruaren eraldatze hori naturari dagokio. Urak hazten direnean, beste garaietan lurmutur lehorrak diren gunek ur azpian geratzen dira, paisaia sinestezin eta berehala errekonozitu ezin direnak sortuz.

Zenbaitetan, aldiz, uraren mailatik gorago behar luketen lur zatiak honoan bizirautea kondentzen ditu gizakiak; zementuzko murrutuekin ibaiaren korronteari eutsiz. Halaxe gertatzen zaio Oskar Alegriari bere umetako irla, Zumiriki, ur mailak gaituta ibaiaren azpian desagertzen zaionean. Eta etxola bat sortzen du, eta begira jartzen da, eta saiatzen da bera ere paisaiaren artean desagertzen beste animalia bat bezala, eta jolasten du, eta zain egoten da, eta sortzen du, eta atzera egiten du, eta orduak ematen ditu uraren mailatik gora agertzen diren zuhaitzen bitartez umetako irla berriz gogoratu nahian. Uraren azpian desagertu da umetako paisaia.

Eta ezin izan nion neure buruari eutsi zineko ilunpetik nire umetako paisaia hartara hegan ihes egin zuenean: ibai ertzera. Ubarroiak begira ditudala, txintxorro bat tamarizari lotuta ur gainean kulunka.

Eta orduak eman nituen, eta ingurua aztertu nuen, eta bilatzen saiatu nintzen, eta gogoratzen ahalegindu, eta aurrez begiratu nion *kaseta negrak* utzi zuen zulo handi hari. Sasiek besterik ez zuten hutsune hartan falta zen etxe handi eta beltz haren silueta marrazten. Ibaiaren ondoan, uretan desagertzen diren eskaileren ondoan, beste negu batez urak azpian hartu du nire umetako askatasunaren ibai ertza.

Mirian Arrizabalaga Biolur elkarteko lehendakaria

“Nekazaritza-politikan aldaketa sakonak behar dira eta kontsumo eredu irauli”

Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren aldeko elkarte da, eta bazkide kanpaina du oraintxe abian bidelagun egiteko gonbita luzatzeko. 1993an sortu zen Biolur, ikastaro baten txinpartaz; hainbat nekazari ekologikoan lanean hasi eta laster ikusi zuten elkarri laguntzeko beharra.

Mirian Arrizabalaga Badiola itziartarra 2009an hasi zen, Nerea ahizparekin batera, baratze gintza ekologikoan, eta orduantxe egin ziren biolurkide. 2011n baratze zain ordezkaritza hasi zen elkarteko juntan, eta 2012tik Biolurreko lehendakaria da. Hona berekin izandako berriketaldia- ren uzta.



Zergatik abiatu duzue “Gure lurriña” bazkide kanpaina?

Harrokeriarik gabe, harrotasunez esango nuke sektorean ekologikoan lan egiten duten gehienentzat eta autokontsumorako egiten duten askorentzat erreferente dela Biolur. Hala ere, gizartean ez gara hain ezagun. Elkarteak, egiten ditugun lanak eta moduak ezagutarazi nahi ditugu; babes lortu eta elkarlanak abiatu. Babes ekonomikoa ere bada helburu bat, lan asko eta baliabide justuak izaten ditugulako, elkarte txiki askoren gisan.

Nola definitzen da nekazaritza ekologikoa?

Gurea Europako araudi bati lotutako ekoizpen eredu bat da, baina definizio desberdinek lurra zaintzea eta haren emankortasuna mantendu edo hobetzea dute komunean; lurra da elikagai ekologiko denen oinarria, eta animaliak ere lurra ematen duenarekin elikatzen dira (sintesi kimikotik eratorritako produkturik gabe), eta haien ongizate orokorra ere zaintzen da, gu ere animaliak garela ahaztu gabe. Horrez gain, bioaniztasuna dago: erabat naturala den ekosistema bat kopiatzen saiatuko bagina bezala.

Hala ere, bada “ekologiko” ideia- ren lapurreta bat nire ustez, “berde” eta “jasangarri” hitzen bitartez berez lotura-

rik ez duten gai eta prozesu ugari lotuz.

Egun bizi dugun krisi ekologiko eta sozialari aurre egiteko elikadura funtsezko ardatza dela diozue...

Bai, betiere zaintza oinarri hartuta. Elikadura eta ekoizpen eredu jakinekin ingurua zaindu dezakegu, baita ekoizle eta kontsumitzaileak ere. Baina, teoriarik sistema perfektua izan daitekeen hori praktikara eramateko zailtasun ugari dago, eta hor gabilta, bidea egin nahian.

“Elikadura eta ekoizpen eredu jakinekin ingurua zaindu dezakegu, baita ekoizle eta kontsumitzaileak ere”

“Elikadura-burujabetza”: zein da praktikan duen garrantzia? Eta lortze bidean baserriaren papera?

Elikadura-burujabetza norberak bere elikadura aukeratu ahal izatea da, ondorioen jakitun. Hori oso gutxitan gertatzen da, nagusi diren ekoizpen eta kontsumo eredu gutzitzaileak. Eredu hori irauli beharko luke baserriak, ingurumen, norbanako eta komunitatearen

osasuna erdigunean jarrita. Erroka handia, bai, baina lortzeko ze ederra!

Zeintzuk dira zuen lan-ildo estrategikoak? Eta nola antolatzen zarete erroka horiei erantzuteko?

Labur-laburrean, formazio eta aholkularitza ematea, merkaturatzea (neurri batean), dibulgazioa eta administrazio-erikiko harremana dira. Baserri eta ekoizleentzako ziurtatzeko beren inguru eta giza baliabideekin ahalik eta autonomoen arituko diren baserriak ditugu buruan. Lan taldeetan antolatzen gara: baratzeak, fruta, abeltzainak eta okinak. Talde bakoitzak elkarteko teknikari baten laguntza eta ekoizle ordezkaritza ditu. Babes handia eskaintzen zaie jarduerari ekin nahi diotenei; hasierak inoiz ez dira errazak eta nekazaritzan gutxiago. Baserriaren arteko laguntza eta harremana ere sortzen da.

Gero elkartean koordinazio orokorra eta proiektuak lantzen dira. Gipuzkoako zazpi azoka ekologikoen antolaketak ere ematen du lan ugari.

Elkarri laguntzeko filosofiak aurreko belaunaldiek hain ohiko zituzten auzo-landegiak gogorarazten dizkigu...

Bai, izan dira, adibidez, negutegiak konpontzeko. Egunerokoan ere, materia-

la lortzeko, zerbait egiteko modua partekatzeko edo, adibidez, landaketa baten kudeaketa argitzeko ere galdetzen diogu elkarrri. Lehen auzokoekin; orain teknologiaz, taldean konektatuta.

2012tik elkartearen lehendakari. Zer irakatsi dizu ardurak?

Ekoizle txiki agroekologikoen sektorea eta gizartea bi abiaduratan bizi garelara, eta uztartzea ez dela samurra. Izan proiektuetan edo instalazio berrietan, denboran iritsi ezinda gabiltzala dirudi.

Kezka sortzen dit ekoizleen zaugarritasunak. Hasierako ilusioak bultzada ematen du, baina gerora lanbidea, bizitza eta ekonomia orekatu ezinak, lana gustuko izanda ere, aurrera egin ezinik lagatzen ditu asko. Nekazaritza-politiketan aldaketa sakonak behar dira eta kontsumo eredu iraulari.

Baserritar izanik ondo ezagutuko duzu zuen aurreko belaunaldiaren bizi-modua... Askok aldatu al da sektorea?

Duela bizpahiru hamarkada espezializazio moduko bat gertatu zen: denetik pixka bat edukizetik (baratze, fruta, ardi, behi...) asko jota hiru jarduerara izatera.

Gero eta okerrago doan beste gai bat kudeaketan eta ekoizpen-koadernoak betetzen behar den denbora da, lehendik ere denboraz justu gabiltzanean...

Eta emakumearen paper eta presen-

tziari dagokionez?

Emakumeek beti izan dute paper garrantzitsua baserrian, bai ekoizpen-lanetan bai familiarren zaintzan, baina ofizialki, jabetza eta ekoizpenari dagokionez, ez balego bezala zen. Orain jabe, titular eta kotitular izan daitezke eta baserri askotan egin da aldaketa.

Egindako lana aitortzeko egin dira hainbat ekimen; nahikoa ez, seguruenik.

“Bada ekologiko ideiarene lapurreta bat; berde eta jasangarri hitzen bitartez prozesu desberdin ugari lotuz”

Orain gutxi baserria lagatzeko ikasten zuten askok. Egun, badira gazteak nekazaritza ikasten...

Ez nuke esango egindako ikasketekin lotura zuzena duenik baserriaren biziraupenak; badira bestelako ikasketadun hainbat ekoizle. Zoritxarrez, ez dut uste biziraupenerako bide onean goazenik, erreleboa da egungo arazo eta erronkarik handiena, ekoizpen eredu guztietan.

Nekazaritza ekologikoaren aldeko sentsibilizazio-lana ere egiten duzue. Ez gara haren garrantziaz jabetu?

Ez dakit gizartea jabetu gabe dagoen

edo ekoizpen-eredu nagusiei buruzko ezagutza falta den. Dendetako apaletan dauden produktuak nola, nork, ze baldintzatan ekoiztu dituzte? Guk gure lana azaltzen dugu, ez bestea.

Erakundeetatik zein neurritan egiten da agroekologiaren aldeko apustu politikoa?

Kasik zero, esango nuke, udal gutxi batzuek salbu. Gehienez agroekologiaren alde lan egiten duten elkarteei ematen zaie laguntza; ez da benetako bultzada.

Beste eragile eta erakunde batzuekin elkarlanean ere bazabiltzate hainbat proiektutan. Zeintzutan?

2021ean Duinan, esaterako. Ekolurra eta EHUko Mirene Begiristainek (Biolurrekoa) baratze-gintzako ekoizpen-kostua aztertu dute. 10 ekoizle egunero urtebetez egindako lana eta denbora jaso dituzte. Barazki mota asko ekoizten direnez kalkulu hori egitea zail zenez, orain arte merkatuaren arabera jarri izan dira prezioak. Ekoizleen erdia gutxieneko soldatara ez zela iristen azaleratu zuen galdeketa bat du azterketak abiapuntu. Kostua jakiteaz gain sentsibilizatorako kanpaina egitea da helburua. Ni ere emaitzak jakiteko gogoz nago.

Aurrera begira jarrita zer nolako zeruertza ikusten du euskal nekazariak?

Goazen erruberran ez du oso kolore polita, baina gabiltzala beste bide batzuk badaudela erakusten. Batu gurekin!

Nagore Dorronsoro

278 BIOLURKIDE

Biolur elkartek modu ekologikoan lan egiten duten lurraldeko nekazariak, abeltzainak eta okinak biltzen ditu. Guztira 278 bazkide ditu gaur egun, eta horietatik 125 ekoizle edo baserritarrak dira, eta beste 153ak, herritarrak.

Debabarrenean, 31 bazkide ditu, Debagoienean 56, Urolan 47, Tolosaldean 23, Goierriin 44 eta Donostialdean 55. Gipuzkoatik kanpo, hainbat tokitan banatuta, beste 22 lagun batu zaizkio elkarteari.

Biolurren bazkide egiteko bideak hauek dira: www.biolur.eus webgunea, 943 76 14 47 telefono zenbakia, eta biolur@biolur.eus e-posta helbidea.



Bazkide kanpainaren aurkezpena Itziarren.

21 bikote lehiatu dira IX. Nesken Binakako Pala Txapelketan

Iruleak Emakume Pilotariak gustura daude Nesken Binakako Pala Txapelketaren azken edizioak emandakoarekin. Pandemiaren ondorioz urtebeteko geldialdia egin ondoren, irailaren 26an abiatu zen VI. Maite Etxeberria txapelketa, eta abenduaren 18an bukatu. Ostegun arratsaldeetan eta igande goizetan jokatu dituzte partidak, eta guztira 21 bikote aritu dira lehiatzen; debarrez gain, inguruko herrietako emakumeak ere izan dira tartean (Mutriku, Elgoibar, Eibar, Ondarroa, Zumaia, Zizurkil eta Andoaingoak).

Aurten, berritasun bezala, bi mailatan banatu dute txapelketa, "palan ibiltzen den edozeinek partu hartu ahal izateko", azaldu dute antolatzaileek. Hori hala, lehen mailan urteetan parte hartu izan duten bikoteak aritu dira, esperientzia handidunak (11 bikote bi taldetan banatuta); eta bigarren mailan hasiberriak edo paletan gutxi aritzen direnak lehiatu dira (10 bikote, beste bi taldetan banatuta).

Lehenengo, bi mailetan ligaxka bat egin dute eta hortik talde bakoitzeko lehenengo lau bikoteak final laurdenak jokatuzera pasa dira; azken horietan nagusitu direnak lehenik semifinalak eta ondoren final ikusgarriak jokatu dituzte.

Abenduaren 18an jokatu ziren bi maila zegozkien finalak, partidaren aurretik agurra dantzatu ondoren. Bigarren mailako finala Edurne Osak (Zizurkil) eta Amaia Gonzalezek (Andoain) irabazi zuten, Ana Egaña eta Mariana Baud zumaiarren kontra (22-13). Lehen mailako partidaren, berriz,



Lehen eta bigarren mailako txapelketa eta txapelketa ordeak.

Elaia Oiartzabal (Deba) eta Amaia Aizpuru (Azkoitia) aritu ziren Iratxe eta Maite Barruetabeñaren (Mutriku) aurka, eta Barruetabeña ahizpek irabazi zuten norgehiagoka (17-22).

Horrela bada, bi mailako lehenengo eta bigarren postuan geratu zirenek sariak jaso zituzten. Maite Etxeberria Saria (urtero arrazoi desberdin batengatik Debako palistaren bati eskaintzen zaion errekonozimendua), berriz, Ainitze Agirrezabalak jaso zuen eta, era berean, txapelketa parte hartutako palista guztiek ere esker oneko oparia jaso zuten pilotalekuan. Azkenik, bazkideen artean urtero-urtero zozketatzen diren bi saskiak Pilar Gonzalo eta Sonia Tomásentzat izan ziren.



Ezkerretik eskuinera, txapelketako partaideen talde argazkia, Ainitze Agirrezabala Maite Etxeberria Saria jasotzen (final gehien jokatu dituen debarra izan delako), eta Pilar Gonzalo eta Sonia Tomás bazkideen artean banatutako saskien irabazleak.



Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheka | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 beheka - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

AMAIKAK BAT DENBORALDIKO TALDEAK IRUDITAN

Urte berrian ere buru-belarri darrai Amaiak Bat futbol taldeak bere 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatuz. Joan den abuztuan, urtemugako ekitaldien aurkezpena egin ostean, hilabetero-hilabetero gai bat jorratzen edo jendarte bat omentzen du klubak, eta urtarrila jokalariei eskainitako hilabetea izendatu zuten (urtarrilaren 29an Amaiak Bat eta Realeko beteranoen arteko partida izango da Errota Zarren). Jokalariak protagonista hartuta, orri honetan jaso ditugu argazkitan denboraldian Amaiak Bat osatzen duten taldeak. Bestalde, horiez gain, irudietan ageri ez diren **beste 100 neska-mutil** ere badabilza aurten futbol eskolan jo eta su.



Kadete 1 Neskak



Gizonezko Ohorezko Erregionala



Infantil Neskak



Emakumezko Ohorezko Erregionala



Ohorezko Infantil Mutilak



Ohorezko Jubenilak Mutilak



Infantil Txiki Mutilak



Kadete Mutilak (Ohorezko eta Kadete 1 taldeak)



Alebin Mutilak



500 bazkide baino gehiago eskuratuta pozik dago Zuhatza Euskara Elkartea, baina ziurgabetasun-egoera erabat gainditu gabe

2021. urtea erronka nagusi batekin abiatu zuen Zuhatza Euskara Elkartea: eskuan zituen proiektuei eutsi ahal izateko egoera ekonomiko larriari buelta ematea. Izan ere, urte hasieran 20.000 euroko diru-galerak aurreikusten zituen.

Egoera iraultzeko lehenengo urrats modura, kontabilitate-ara-zoei aurre egiteko aholkularitza-zerbitzua kontratatu zuen elkarteak. Eta haren laguntzaz, laster ikusi zuen ezinbesteko zuela autofinantzaketa handitzea. Horretarako, bi helburu lortu beharko zituen: batetik, bazkideen babes ekonomikoa handitzea, 250 bazkide zituen orduan elkarteak eta 600 bazkidera iristea jarri zuen jomugan; eta, bestetik, bestelako autofinantzaketa bat eskuratzea (publizitatea, errifa eta material salmenta, askotariko ekimenak...).

Bazkide eta publizitate kanpaina

Behin jomuga argi izanda, bazkideen babesa lortzeko bazkide kanpaina jarri zuen abian elkarteak. Eta haren baitan, egoeraren sozializazioa egiteko ekimenak burutu

zituen: bazkideak informatu, alderdi politikoekin eta herriko eragileekin bilerak egin (20 eragile baino gehiago), herritarrentzako bilera irekiak antolatu, eta prentsa bidezko zabalkundea egin; hori dena, betiere, kale-presentzia etengabea izanez (kartelak, buzonada, materiala sortu eta saltzea, ekimenak...).

Bazkide kanpainarekin parez pare, herri aldizkarirako publizitate kanpaina bat ere abiatu zuen Zuhatzak, eta herriko denda, enpresa eta hainbat elkartetara jotzeaz gain, inguruko herrietako zerbitzu-eskaintza eta enpresa handietara ere jo zuen publizitate-bezero berrien bila.

Urtebetea igaro da jadanik Zuhatzak kanpainak abiatu zituenetik, eta elkarteak jaso du dagoeneko egindako ahaleginaren uzta: 500 bazkideetik gora ditu orain (urtebetean bazkide kopurua bikoiztu du); publizitateari dagokionez, berriz, diru-sarrerak nabarmen igo ditu, eta bestelako akordioak

ere lortu ditu hainbat enpresa handirekin. Egindako bilerekin, berriz, herriko hainbat elkartek beren laguntza eskaini dio, eko-

**“Eskerrak eman nahi
dizkizuegu bidelagun
izan zaituztegun
guztioi zuen aletxo
jartzeagatik”**



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 beheka - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

nomikoa zein elkarlaneko. Eta horiez gain, urteroko dinamika-ri eutsi eta beste hainbat ekimenetan ere parte hartu du elkarteak (Errigora, Ekilarre, Gure Giro...).

Hori guztia horrela, maila ekonomikoan uste baino hobeto bukatu du Zuhatzak urtea eta herritarrengandik babes handia jaso du gainera. Horregatik, elkarteko arduradunen hitzetan, "esker-rrak eman nahi dizkizuegu bide honetan lagun izan zaituztegun herritar guztioi, bai bazkide eginez, bai buzzoneketan lagunduz, bai ekimenetan parte hartuz, bai ekimenak antolatzen lagunduz, bai bazkideen orrian zuen iritzia emanez... Eskerrik asko benetan guztioi zuen aletxoak jartzeagatik!". Hala ere, gogorazten dutenez, "arazo ekonomikoa ez da guztiz desagertu, diru-laguntzen menpe bizi gara eta alde horretatik inbertsioak egiten jarraitzea beharrezko dugu; ziurgabetasun egoerak hor dirau".

www.berriketan.eus

Urtarrilean prest izango da atari digitala, eta otsailetik aurrera ikusgai. CodeSyntax enpresak diseinatu du webgunea. Otsailetik aurrera lan-dinamika berriari helduko dio, beraz, lantaldeak, aurrerantzean **Berriketan** bi hankako komunikazio-proiektua izan dadin. Bestalde, "webgunea proiektu dinamikoa izan dadin, ezinbestekoa izango da herritar eta eragileen parte hartzea", gogorarazi dute taldekideek.

Debabarreneko tokiko komunikabideekin elkarlanean

Duela urtebete inguru hasi zen **Berriketan** aldizkariako lantaldea Debabarreneko beste aldizkariarekin batera elkarlanerako zeuden aukerak aztertzen eta lantzen. Komunikazio esparruan batera jarduteko eta indarrak batzeko erronkak batu ditu izaera eta filosofia bereko hedabide horiek (erakunde publikoak ere bide hori sustatzen dabilta azkenaldian). Aholkulari batek dinamizaturakoa da prozesua eta dagoeneko hasiak dira eduki komunak lantzen eta partekatzen. 2022an ere lan ildo horri eutsiko diote.

2022ko erronkak

Ekonomikoki ziurgabetasun-egoeran hasiko du elkarteak urtea (diru-laguntzen deialdi eta ebazpenen zain), baina lanean gogotsu jarduteko asmoz. Horretarako, ordea, elkarte indartzea du asmo (bazkideen inplikazioa handituz, bazkideei onurak eskainiz eta zuzendaritza berrituz).

Bestalde, komunikazio-proiektua sendotzen jarraitzeko bidean tinko segiko du elkarteak (aldizkariarekin jarraitzeaz gain webgune berria martxan jarri eta eskualdeko proiektuan parte hartzen jarraituz). Eta, azkenik, ekimen berriei ateak zabaltzeaz gain, diru-sarrerei eutsi, eta herriko eragileekiko elkarlana indartzeko asmoa ere badu Zuhatzak 2022an.



2021ak emandakoa

2021ean honako ekimen hauek burutu ditu elkarteak:

- Kolore Anitz Aisialdi Taldearen ekimenak (inautrietako ekintza, Kolorez Blai euskal udalekuak, Kolore Anitz Eguna...).
- Mintzalaguna egitasmoa (hiru talde aktibo, astero-astero ordubetez euskaraz hitz egiteko batzen direnak).
- Bazkideentzako hilabeteroko zozketak eta errifak.
- Zuhatzaren materiala (kamisetak, poltsak, musukoa eta Bagera garagardoa).
- Hileroko Deba-Itziar BIRA lehiaketa.
- Euskararen Nazioarteko Egunaren harira osatutako Euskeraz Bagera programazioa (Mintzodromoa, ikastarok, hitzaldia, kontzertua, Kalean Kantuz...).
- **Berriketan** aldizkariaren hamaika ale paperezko edizioan, webgune berria eta eskualdeko hedabideen proiektua.

Horrez gain, hainbat elkarlan ere eraman ditu aurrera, honakoak adibide gisa: Errigora (kanpainak eta dastaketa Bordatxo jatetxean), Gure Giro jaialdiaren baitan antolatutako bertso saioa (Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran eta Aitor Sarriegi), Euskal Jaiko bazkari herrikoia, DBHko literatur lehiaketa, eta Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.





Etxegabeentzako aterpea

Eibarko karmeldarren elizan (Karmen kalean) kokatzen den neguko aterpeak abenduaren 1ean ireki zituen ateak, eskualdeko etxegabeei zerbitzua eskaintzeko asmoz. Ohea, higiene pertsonala, arropa garbitzeko aukera eta jatekoa ematen diete erabiltzaileei urteko hilabeterik hotzenetan (apirilaren 15era arte), hainbat urtetan faltan izan den behar bati erantzuna emanez.

DKT (DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA)

Debabarreneko Gipuzkoako udalek, hau da, Debak, Eibarrek, Elgoibarrek, Mendarok, Mutrikuk eta Soralezek, neguko dispositiboa jarri dute martxan etxegabeei ostatu emateko. Iraganean zenbait saiakera egin dira horrelako zerbitzuak eskaintzeko, baina orain arte ez dute proiektu komunik garatu ahal izan eta pozik daude egitasmo honek izan duen harrerarekin.

Idoia Sarasketa Eibarko Udaleko Gizartekintza saileko arduradun politikoak dioenez, “gai horretan eskualdea zorretan zegoen”, nahiz eta azken urteotan zenbait proposamen eta ekintza egin diren. “Orain dela hiru urte neguko aterpea ireki genuen Eibarko Azitain kalean dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan, baina ikusi genuen ez zela tokirik egokiena. Iaz, Matxaria kalean Udalak dituen etxebizitza batzuetan eta Untzaga Hotelean aterpe zerbitzua eskaini genuen; eta,

pandemia hasi zenean, Deban dagoen Santiago Bideko ostatua etxegabeentzako ireki zuten”, azaldu digu zinegotziak. “Debabarrera osoari ematen zitzaion zerbitzua, baina ez zegoen toki askorik. Ekintza puntualak izan ziren, protokoloa 3 gradutik jaisten zen egunetan aktibatzen zen”, gehitzen du.

Salbuespenetik harago joan eta beharrari erantzun integrala emateko asmoz, aterpea Eibarko karmeldarren elizan ezartzeko aukera sortu zen eta erlijiosoek parez pare ireki zizkieten ateak proposamenari, instalazioak doan eskainiz. “Asko eskertzen diegu keinua eta, gauzak ondo, akordioa urte gehiagorako luzatzeko aukera izango dugu”, diosku Sarasketak. Momentuz aterpea ez da urte osoan zehar egongo zabalik, neguan bakarrik, baina eskualdeko udalen zorra arintzeko balio izango du eta Sarasketak esan digunez erakundeak “harro” daude lortutakoarekin.

Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten karmeldarren elizan dagoen aterpetxean

14 plaza arrunt

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt ditu gaua non pasatu ez dutenentzat. Zerbitzua jaso nahi dutenak eskualdeko udalako gizarte zerbitzuekin, gizarte hezitzaileekin, Gurutze Gorriarekin, Osakidetzarekin, Caritasekin, udaltzainekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jarri behar dira, eta egunero erabiltzaileen zerrenda bat osatzen du Eibarko Udaltzaingoak. 20:00etan amaitzen da izena emateko epea, baina norbait beranduago agertzen bada


eta plazaren bat libre bada-gu, sartzeko aukera izaten du. Horrela, erabiltzaileek gaua pasatzeko aukera izaten dute, hilean bost aldiz gehienez.

Azken egunetan bezala hotz handia egiten duenean, sei plaza gehiago jartzen dituzte eskuragarri. Gainera, egonaldi ertaineko beste lau plaza daude, “baina plaza hauek lortzeko gizarte langileek erabiltzaileen txostena egin behar dute eta erabiltzaileek euren bizitza bideratzeko konpromisoa hartu behar dute”, azaldu digu Sarasketak.

Plaza arrunt bat lortzeko baldintza hauek bete behar dira: norberaren higienari eta zentroko higienari buruz langileek emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea, jokabide-nahasterik ez edukitzea edo bertako elkarbizitza normala larriki nahas dezakeen portaerarik ez izatea, ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisiko edo psikologikorik ez edukitzea, eta zerbitzuak eskaini ahal ezin dituen



Sukaldari batek afariak eta gosariak prestatzen ditu aterpetzeko erabiltzaileentzat. EKHI BELAR



Logela gehienetan bi ohe eta komuna daude, baina badago sei ohe dituen logela familiarra baita ere. EKHI BELAR

osasun-laguntza espezializatuen beharra ez edukitzea. Gainera, bizikidetzaz egokia izateko zenbait arau jarraitu behar dituzte.

Aterpearen funtzionamendua

Aterpetxeak 20:00etan irekitzen ditu ateak goizeko 10:00ak arte, eta atea gurutzatu bezain laster teknikariek harrera egiten diete erabiltzaileei. Erabiltzaileek COVID protokoloa bete behar dute une oro eta sarreran armairu batzuk dituzte euren gauzak lagatzeko.

Eskailera igotzean (igogailua ere badago) jangela, sukaldaria, garbiketarako gela eta logelak aurkitu ditzakete, eta balkoi-ira irteteko aukera dute nahi izanez gero. “Logelak bi ohekoak dira, komunarekin, baina behar izanez gero sei oheko logela familiarra ere badago”, esan digu Sarasketak.

Erabiltzaileak bi integratzaile eta hezitzaile baten begiradapean daude aterpetxean, eta euren beharrei erantzuna ematen saiatzeaz gain, arazoak ekiditeko edo konpontzeko daude.

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt, sei plaza hotz handia egiten duen egunetarako eta egonaldi ertaineko lau plaza ditu

Horrez gain, sukaldari batek afaria eta gosaria prestatzen ditu, eta garbitzaile bat dago.

Eskaerak gora urtarrilean

Aterpea zabaldu zutenean, abenduaren lehen astean, ez zuten erabiltzaileirik jaso, baina handik aurrera jendea etortzen hasi zen. “Horrelako kasuetan ahoz ahokoak funtzionatzen du, jendeak horrela izan du batez ere zerbitzuaren berri”, diosku Sarasketak. Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten eta, batez beste, per-

tsona bakoitzak bi gau egin zituen. Abenduan, erabiltzaile gehien egon ziren egunetan sei lagun elkartu ziren, baina urtarrilean hotz gehiago egin du eta egun batzuetan 11 lagun elkartu izan dira.

Zinegotziak esan digunaren arabera, hara eta hona dabilen jendea etortzen da aterpetxera, horrelako zerbitzuak hilean bost aldiz erabili ahal izaten dituztelako gehienez eskualde guztietan. Horrela, jatorri ezberdinetako jendea elkartzen da, baina euren arteko bizikidetzatza ona dela esan digu Sarasketak. “Gainera, orain dela gutxi emakume bat izan dugu, nahiko gauza arraroa dena, eta ez da inongo bizikidetzatza arazorik egon”, dioenez.

Erakundeak pozik daude aterpetxearen egitasmoak izan duen harrerarekin eta eskaintzen duen zerbitzuarekin, eta datorren hilabetean eskualdeko udal-teknikariak aterpetxean elkartuko dira bere funtzionamendua gertutik ezagutzeko. “Gainera, herritarrentzat ateak ireki nahi ditugu ondoren, gaia ondo ezagutzeko eta kontzientzia hartzeko”, amaitu du zinegotziak.

Erredakzioaren oharra:

***Ekimenak COVID-19ak eragiten duen egoeraren baitan egongo dira, beraz, aldaketak egon daitezke programazioan.**

URTARRILAK 29, LARUNBATA

-12:00. Amaiak Bat eta Real Sociedad-eko **beteranoen partida** Errota Zar futbol zelaian.
-13:30. **Elkarretaratzea:** "Diskriminaziorik gabeko herrian bizi nahi dugulako. Covid paseari ez", Osasun Haziak-ek deituta, Foruen plazan.

URTARRILAK 30, IGANDEA

-19:00. **Zinema:** "Judas y el mesías negro", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

OTSAILAK 3, OSTEGUNA

-19:00. **Antzerkiforuma:** "Eta hik zer?", Agirre jauregiko Ispiluen gelan, Bizikidetzeta Batzordeak antolatuta. Aurrez eman behar da izena (685 720 032).

OTSAILAK 6, IGANDEA

-19:00. **Zinema:** "Quo vadis, Aida", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

OTSAILAK 7, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

OTSAILAK 11, OSTIRALA

-17:00. **Odol-ateratzeak**, Luzaro ikastetxean. Txanda hartzeko: 635 754 164 (16:30-20:30).

OTSAILAK 13, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua:** "Gotikoaren altxorra". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.
-19:00. **Zinema:** "Ammonite", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

OTSAILAK 20, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua:** "Flysch beltza". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.
-19:00. **Zinema:** "Pequeño país", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

OTSAILAK 21, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, Foruen plazan.

OTSAILAK 25, OSTIRALA

-20:00. **Musika kontzertua:** Olatz Salvador, Kultur Elkartearen aretoan (KulturEkin dinamikaren baitan).



Kaldereroak

-Otsailaren 19an, larunbata, Kaldereroen kalejira izango da. Otsailaren 5ean eta 12an izango dira entseguak Luzaro ikastetxean 11:00etatik 13:00etara. Hilaren 19an Agirre jauregiko plazan elkartuko dira, 19:00etan, eta 19:30ean abiatuko da kalejira kaleetan zehar. Entsegurik gabe ere har daiteke parte.

KZgunea

-KZguneak YouTubeko hitzaldiekin eta ikastaroekin jarraitzen du. Urtarrilean arratsalde egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, eta otsailan, berriz, goizez, 9:00etatik 13:00etara. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus.

"Deba 100 hitzetan" lehiaketa

-Cardenas fundazioak eta Debako Udalak antolatutako "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketaren VII. edizioa egingo da. Deba gai hartuta 100 hitz baino gutxiagoko eta argitaratu gabeko lanak dira aurkez daitezkeenak. Turismo bulegoan entregatu behar dira, otsailaren 25a baino lehen (14:00).

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

URTARRILAK 28, OSTIRALA

Elgoibar
-20:30. **Kontzertua:** Ruper Ordorika, Herriko Antzokian (Kultura Sailak antolatuta). Sarrerak salgai www.herrikoantzokia.eus-en.

OTSAILAK 19, LARUNBATA

Ermua
-20:00. **Blues Kontzertua:** The Cinelli Brothers, Lobiano Kulturgunean. Sarrerak salgai Kutxabankeko webgunean edo kutxazainetan.

OTSAILEAN ZEHAR

Soraluze
-**Erakusketak** Oreka Art galerian, otsailaren 25era arte: Txiki Agirre *Keixetaren "Pinturak eta zeramikak"* eta Xabier Egaña artistaren lanak.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 28, 29, 30, otsailak 7, 8, 9, 10.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 11, 12, 13, 21, 22, 23, 24.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 29 / otsailak 5
BURGOA ZUAZO: otsailak 12 eta 19
9:30 - 13:00



PILARIK GABEKO AUDIFONOAK

PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS:183/12



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Nº. 379

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbiztuak

Aholkularitza

Higiezin Agentzia

Komunidadeen administrazioa

Tasazioak/ Balioztaketak



ekodenda,
dietetika,
belardenda


ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfaticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14

943 19 24 42

sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel.faxa: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

20820 DEBA (Gipuzkoa)

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com



Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127

Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)



ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA

Hondartza kalea 13 DEBA

T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU

Behoko plaza 1 MUTRIKU

T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak

@adatsileak

ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460

E-mail: asketa@telefonica.net

www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9

20850 MENDARO (Gipuzkoa)



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

EUSKERAZ BAGERA

MATERIAL SALMENTA

12€



Euskeraz bagera kamiseta

Unisex - Emakumezkoa - Umea
Neurri guztiak



2,5€

Bagera artisau garagardoa

Pilsner - Glutenik gabea

Erreserbak ☎ 688 840 308
Ifar kalea 12, behea

Zuhatz
deba

**euskara
elkartea**